

KANAL ETIKOA ERABILTZEKO POLITIKA

Mesedez, kanalaren bidez edozein informazio eman baino lehen, irakurri eta kontuan hartu ondorengo atalak. Gogoan izan, halaber, kanal honen ordezkari kanpoko informazio-kanalak erabiltzeko aukera duzula, behin Administrazio publikoak sortu eta jendearen eskura jarri ondoren, informazioa Informatzailea Babesteko Agintaritza Independenteari bidaltzeko –hori baita gai horretan eskumena duen agintaritza– eta, hala badagokio, Europar Batasuneko erakunde, organo edo organismoei ere bai.

1- KANALAREN FUNTZIONAMENDUA

Web-orriaren bidez kanalera sartzean, pantaila bat irekiko da, eta bertan bi aukera ikusiko dituzu:

- A. **KOMUNIKAZIOA IDATZI.** Komunikazio berri bat bidaltzeko.
- B. **AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA IKUSI.** Aurrez egindako komunikazioen jarraipena egiteko, komunikazioak ikusteko eta lehen egindako komunikazioen bat zabaltzeko.

Komunikazio berri bat bidaltzeko, KOMUNIKAZIOA IDATZI sakatu eta pantaila bat irekiko da, eta pantailaren erdian «Erabilera-baldintzak eta pribatutasun-politika» testua agertuko da. Erabilera-baldintzak irakurtzeko, egin klik testu horren gainean, horrela bakarrik markatu ahal izango baituzu «Irakurri ditut eta onartzen ditut Erabilera-baldintzak eta pribatutasun-politika» botoia. Hortik aurrera, «Hurrengoa» botoian klik eginez, komunikazioa idazten hasi ahal izango duzu.

Ondoren, aplikazioak komunikazioaren atal desberdinetara eramango zaitu:

- Komunikazioaren datuak.
- Datu pertsonalak.
- Erlazionatutako pertsonak eta erantsitako fitxategiak.
- Berrespena

Atal horietako bakoitza bete ondoren, **HURRENGOA** sakatu beharko duzu hurrengora pasatzeko.

Komunikazioa amaitzean, aplikazioak erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat emango dizkizu –zuk bakarrik ezagutuko dituzu–, aurrez egindako komunikazioak ikusi ahal izateko, komunikatuak irakurtzeko, informazioa zabaltzeko, etab.

Bestalde, kanal honetan modu anonimoan edota izendunean egin daitezke komunikazioak –betiere erabateko konfidentziasunez–, informatzaileak nahi bezala. Kanalak, gainera, aukera ematen du komunikazioak idatziz erregistratzeko edota salatzaileak mezu bat grabatzeko –ahots distorsionatuarekin–, «eranskinak» atalean. Kasu horretan, ahots-mezua distorsionatuta iritsiko zaigu, eta ezinezkoa izango zaigu informatzailea nor den jakitea.

2- ERABILERA-BALDINTZAK

KANALAREN HELBURUA

Informazio-kanal hau barne-kanal bat da, eta lankidetzaz erraztea du helburu. Erakundearen barruan antzemandako lege kanpoko jarduketak, erakundearen kode etikaren aurka doazenak edota erakundearen barne-funtzionamenduari eragiten diotenak jakinarazteko helburuarekin bidali behar dira komunikazioak kanal honen bidez, horietan oinarrituz barne-ikerketa sustatzeko eta, hala badagokio, ikertutako jokabideak lehenbailehen zuzentzeko eta eragindako kalteak geldiarazteko eta konpontzeko. Horrenbestez, kanal hau fede onean oinarrituta erabili beharko da beti.

KANALAREN BIDEZ KOMUNIKATU BEHARREKO INFORMAZIOA

Kanal hau GRUPO URGATZIREN barruan gertatu diren edo erakundearen funtzionamendu egokiari kalte egiten dioten jokabideak jakinarazteko da soil-soilik, betiere baldintza hauek betetzen direnean:

- Informatzaileak lanaren edo lanbidearen testuinguruan izatea jokabide horien berri.
- Jokabide horiek Europar Batasuneko ordenamendu juridikoa urratzea edo gure ordenamendu juridikoaren arabera arau-hauste penal edo administratibo astuna edo oso astuna izatea.

Zehazki, arau-hauste mota hauek jakinarazteko soilik erabili beharko da kanala:

- 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren eranskinak honako arlo hauetan markatzen dituen arau-hauste jakin batzuk:
 - Kontratazio publikoa eta emakiden esleipena.
 - Finantza-zerbitzu, -produktu eta -merkatuak (banku-, kreditu-, inbertsio-, aseguru- eta berraseguru-produktuak, pentsio pertsonalen edo erretiro-pentsioen produktuak, balore-zerbitzuak, inbertsio-funtsen produktuak, ordainketa-produktuak), eta kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa.
 - Garraioaren segurtasuna.
 - Ingurumenaren babesa.
 - Osasun publikoa.
 - Kontsumitzaileen babesa.
 - Pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesa, eta informazio-sareen eta -sistemen segurtasuna.
- Batasunaren finantza-interesei eragiten dieten edo barne-merkatuan eragiten duten arau-hausteak, lehiaren eta estatuek emandako laguntzen arloko Batasuneko arauen arau-hausteak barne, bai eta barne-merkatuari buruzko arau-hausteak ere, sozietateen gaineko zergaren arauak hausten dituzten egintzei edo sozietateen gaineko zergari aplikatu beharreko legeriaren xede edo helburua desitxuratzeko duen abantaila fiskala lortzea duten egintzei dagokienez.
- Gure ordenamendu juridikoaren urraketak, arau-hauste penal edo administratibo astuna edo oso astuna eragin dezaketenak edo interes orokorrari zuzenean eragiten diotenak. Ulertzen da interes orokorra konprometitu dagoela arau-hausteak Ogasun Publikoari eta Gizarte Segurantzari kalte ekonomikoa ekar diezaikeenean.
- GRUPO URGATZIlren jardura osoa zuzendu behar duten jarduketa-printzipio etikoekin bat ez datorren edozein jokabide edo egoera. Bereziki nabarmentzekoak dira prebentzioko, sexu-jazarpeneko eta/edo sexuan oinarritutako jazarpeneko eta diskriminazioko protokoloak ez betetzea dakarten egoerak, kanal etikoa lehentasunezkoa baita horrelako egoerak salatzeko.

KANALAREN BIDEZ EMAN EZIN DEN INFORMAZIOA

Kanal hau ez dago bideratuta partikularren arteko harremanak arautzen dituzten eta erakunde publiko eta pribatuen funtzionamendu egokiari eragiten ez dioten zuzenbide pribatuko arauen urraketak komunikatzera. Kanal hau EZ da gure zerbitzuekin zerikusia duten kexak komunikatzeko, informatzaileari eta komunikazioan aipatutako pertsonari eragiten dieten gatazka pertsonalen berri emateko –arau-hauste penal edo administratibo astun edo oso astunak direnean salbu–, soldata- eta opor-aldarrikapenak egiteko, ez eta zurrumurruak zabaltzeko ere. Laburbilduz, **KANAL HAU EZ DA** aurreko 2. puntuan jasota ez dauden ekintzei edo omisioei buruzko informazioak komunikatzeko.

Kanal honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira legezko ez-betetzeak eragiten ez dituzten lan-arloko gaiak, jazarpen ez diren gatazka pertsonalak, eta, oro har, GRUPO URGATZIlren zerbitzuen prestazioari buruzko erreklamazioen edo ohiko gorabeheren inguruko jarduketak.

NORK ERABIL DEZAKE KANAL HAU?

GRUPO URGATZIlrekin (taldeko arlo, zentro edo zerbitzuetatik edozeinetan) lan- edo lanbide-testuinguru batean ustezko arau-hausteren bati buruzko informazioa lortu duen edonork erabili ahal izango du kanala, betiere aurreko 2. puntuan adierazitakora egokitzen bada. Zehazki, kategoria hauetakoren batean sartzen direnek erabili ahal izango dute kanala:

- GRUPO URGATZI osatzen duten entitateetako bateko langile direnek edo izan direnek;
- Entitate horiekin lanbide-harremana duten edo izan duten profesional autonomoek;
- Akziodunek, partaideek eta administrazio-, zuzendaritza- edo gainbegiratze-organoetako kideek (exekutiboak ez diren kideek barne);
- Kontratisten, azpikontratisten eta hornitzaileen gainbegiratzepean edo zuzendaritzapean lan egiten duen edo egin duen edonork;
- Boluntario direnek edo izan direnek;
- Bekadun direnek edo izan direnek;
- Prestakuntza-aldiko langile-izaera duten edo izan dutenak, ordainsari bat jaso ala ez;
- Oraindik lan-harremana hasi gabe duten baina hautaketa-prozesuan edo kontratua egin aurreko negoziazio-prozesuan arau-hausteei buruzko informazioa jaso dutenak;
- Enplegatu publikoek.

3- PRINTZPIO OROKORRAK

KONFIDENTZIALITASUNA

Erabat bermatzen dugu informatzaileen eta jasotako komunikazioetan aipatutako hirugarren guztien konfidentzialtasuna. Erabat bermatzen dugu informazioaren tratamenduaren eta egitateen ikerketaren konfidentzialtasuna ere.

Babestu egingo dugu informatzailearen nortasuna. Nortasun hori ez da inoiz izango datu pertsonalak eskuratzeko eskubidearen xede, eta agintaritza judizialari, Ministerio Fiskalari edo administrazio-agintaritza eskudunari bakarrik komunikatu ahal izango zaio, legezko betebeharez; horretarako, nahitaezkoa izango da hirugarrenei datu horiek eskuratu ahal izatea eragozte. Azaldutako egitateetan aipatzen diren norbanakoei ez zaie informatzailearen nortasuna adieraziko.

Babestu egingo dugu komunikazioan azaldutako egitateetan aipatutako norbanakoei buruzko informazioa ere, arriskua egon daitekeenean informazioa –itxuraz egiazkoa izanda ere– manipulaturik egoteko, faltsua izateko edo Zuzenbideak babestu ezin dituen arazoietan oinarrituta egoteko. Kasu horietan, erantzukizuna informatzailearena izango da eskusiboki, eta hark soilik erantzun beharko du; salbuetsita geratuko dira, beraz, barneko informazio-sistemaren titularra den erakundea eta kanala mantentzeaz eta kudeatzeaz eta jasotako kasuak kudeatzeaz arduratzen den kanpoko erakundea.

Bestalde, hauek bakarrik sartu ahal izango dira barneko informazio-sistemara:

- Barneko-informazio sistemaren arduraduna.
- Erakundeak informazioa kudeatzeko prozeduran jasotako informazioak kudeatzeko izendatutako pertsonak.
- Informazio-kanalaren kanpoko arduradunak –independentzia, konfidentzialtasuna, datuen babesa eta komunikazioen sekretua errespetatuz betiere–.
- Ikerketen emaitzetatik erator daitezkeen diziplina-neurrien arloko giza baliabideen arduraduna.
- Erakundeko zerbitzu juridikoen arduraduna, legezko neurriak hartu behar izanez gero.
- Hala badagokio, datuen babeserako ordezkaria.

ANONIMOTASUNA

Komunikazioa modu anonimoan edota izendunean egin ahal izango da kanalaren bidez; informatzaileak nahi bezala. Anonimotasunez jokatzeari erabakiz gero, erabateko anonimotasuna bermatzen duen komunikazio-mekanismo bat du kanalari euskarria ematen dion plataforma elektronikoak.

FEDE ONA

Fede onean oinarritu behar dira informatzaileak emandako informazioak. Horrenbestez, ez da komunikatu beharko informazio faltsurik, desitxuraturik edo modu ez-zilegian lortutakorik. Informatzaileak fede onez jokatu behar du legearen babesa jaso dezan.

ERRUGABETASUN-PRESUNTZIOA

Kasu guztietan errespetatuko ditugu errugabetasun-presuntzioa, entzuna izateko eskubidea eta ikertuen ohorea.

ETIKA-BATZORDEA

Etika eta Jokabide Batzordea arduratuko da kanal etikoaren bidez jasotako komunikazioak jasotzeaz, tratatzeaz eta kudeatzeaz, betiere konfidentzialtasuna eta eragindako pertsonen eskubideak bermatuz eta salatzailea babestuz. Komunikazio guztiak konfidentzialak eta –nahi izanez gero– anonimoak izango dira, eta xehetasunez aztertuko dira. Bermatuko da komunikazioak fede onez egiten dituztenen aurka ez dela errepresaliarik egongo, eta une oro errespetatuko dira informatzaileen eskubideak.

4- INFORMATZAILEAREN BABESA

Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen helburu nagusia informatzailea babestea da. Horrenbestez, lege

bermatuta dago informazio-kanala erabiltzen dutenen babesak, betiere erabiltzaileak I. ATALaren 4. PUNTUAN (ERABILERA-BALDINTZAK) aurreikusitako baldintzaren bat betetzen bada eta jakinarazten duen arau-haustea ATAL BEREKO 2. PUNTUAN ezarritakoarekin bat badator. Eta betiere kanala fede onez erabiltzen bada, egitate larriak gertatu direla edo gerta daitezkeela uste bada, eta ematen den informazioa modu ez-zilegian lortu ez bada.

Baldintza horiek betez gero, informazio-kanala erabiltzen duen oro legez babestuta egongo da, erakundeak errepresalia gisa (errepresalia-mehatxuak eta -saiakerak barne) izan dezakeen edozein jokabideren aurrean. Ondore horietarako, errepresaliatzen hartzen dira legeak debekaturiko egintza edo omisio guztiak, edo – zuzenean nahiz zeharka– tratu kaltegarria dakartenak, halakoak jasaten dituztenak desabantailan uzten badituzte beste batzuen aldean lan- edo lanbide-testuinguruan, informatzaile izate soilagatik.

Honako hauek, adibidez, errepresaliatzen joko lirateke:

- Lan-kontratua etetea; kaleratzea edo lan-harremana amaitzea –probaldia gainditu ondoren aldi baterako lan-kontratua ez berritzea edo aldez aurretik amaitzea barne–; ondasun- edo zerbitzu-kontratuak aldez aurretik amaitzea edo deuseztatzea; edozein diziplina-neurri ezartzea; maila degradatzea edo maila-igoera ukatzea; lan-baldintzen funtsezko beste edozein aldaketa; eta aldi baterako lan-kontratua mugagabe ez bihurtzea.
- Kalteak –ospeari eragiten diotenak barne–, galera ekonomikoak, derrigortzeak, larderiak, jazarpena edo ostrazismoa.
- Lan- edo lanbide-jarduerari buruzko ebaluazio edo erreferentzia negatiboak.
- Zerrenda beltzetan sartzea edo arlo sektorial jakin batean informazioa zabaltzea, enplegua lortzea edo obrak edo zerbitzuak kontratatzea zailtzen edo eragozten dutenak.
- Lizentzia edo baimen bat ukatzea edo deuseztatzea.
- Prestakuntza ukatzea.
- Diskriminazioa edo tratu kaltegarri edo bidegabekoa.

Zehazki, legeak ezartzen du debekatuta daudela eta deusez deklaratu direla errepresaliatzen jo daitezkeen jokabideak, baldin eta kanalaren bidez jasotako informazioaren ondorioz hasitako ikerketak amaitu eta hurrengo bi urteetan zehar gertatzen badira.

Legeak bermatzen duen babesak honako hauek ere biltzen ditu:

- Langileen legezko ordezkariak, informatzaileari aholkularitza eta laguntza emateko eginkizunak betetzen ari direnean.
- Informatzaileak zerbitzuak ematen dituen erakundearen esparruan hari prozesuan laguntzen dioten pertsona fisikoak.
- Informatzailearekin zerikusia duten eta errepresaliak jasan ditzaketen pertsona fisikoak, hala nola lankideak eta familiartekoak.
- Informatzailearen enplegatzaile diren, harekin lan-testuinguru batean harremana duten edo hark partaidetza esanguratsua duen pertsona juridikoak.

5- ZER GERTATZEN DA KOMUNIKAZIOA BIDALI ONDOREN?

Komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, plataformak erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat sortzen ditu. Informatzaileak bakarrik ezagutuko ditu horiek, eta gorde egin beharko ditu, gerora komunikazio horretan sartu ahal izateko, Batzorde Etikaren komunikazioak irakurri ahal izateko, dokumentazioa eransteko, etab. Informatzailearen erantzukizun eskusiboa izango da ematen zaizkion sarbide-kredentzialak konfidentzialtasunez gordetzea eta zaintzea.

Batzorde Etikoa jakinarazpena jaso eta hurrengo zazpi egun naturaleko epean jakinaraziko dio informatzaileari komunikazioa jaso duela. Ikerketa amaitzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da; nolahi ere, konplexutasun handieneko kasuetan, gehienez sei hilabetekoa izaten ahalko da. Jasotako informazioa aztertu ondoren, batzordeak erabaki hauetakoren bat hartuko du:

- Izapidetzeko onartzea eta ikerketa-espeditente bat hastea.
- Izapidetzeko onartzea eta ikerketa amaitzea, baldin eta edukia garrantzirik gabea bada, informazioa egiazkoa ez bada edo ikertzen jarraitzeko nahikoa ez bada.
- Ez onartzea, arau-hausterik ez dagoelako, eta jakinarazitako egitateen azterketari amaiera ematea.

Nolanahi ere, kategoria bereziko datuak dituen informazio oro ezabatu egingo da berehala, erregistratu gabe eta datuak tratatu gabe, betiere datu horiek ikerketarako beharrezkoak ez badira, eta salbu eta tratamendua funtsezko interes publikoko arrazoiengatik egiten bada (DBEOren 9.2.g artikulua).

6- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE ALDERDI BATZUK

Informatzaileak nahi bezala eman ahal izango du informazioa; hots, anonimoki edota bere burua identifikatuz –bigarren kasu horretan, konfidentzialtasuna bermatuko da–. Komunikazioa egitean identifikatu egiten bada edo jakinarazpenak jasotzeko helbide bat, helbide elektroniko bat edo leku seguru bat adierazten badu, komunikazioa jaso eta hurrengo zazpi egun naturaleko epean komunikazioaren hartu-agiria bidaliko diogu, betiere horrek ez badu komunikazioaren konfidentzialtasuna arriskuan jartzen.

Kanala erabiltzen badu –bere burua identifikatu edo ez–, komunikazioa bidaltzearekin batera berarekin komunikatzeko bide bat ematea gomendatzen dugu, ikerketa izapidetu ahal izateko informazio gehigarria eskatzeko, egozten zaizkion ekintzen edo omisioen berri emateko, eta edozein unetan entzuna izateko eskubidea baliatu ahal izateko.